

IKUSMIRAN

Azterketaren aurrerapena

Lanbide-arteko
Gutxieneko Soldata (LGS)
propio baten beharra

2026ko OTSAILA

Azterketaren azalpena

Ipar Hegoa Fundazioak Lanbide-arteko Gutxieneko Soldata propio bat ezin ezartzeak langileentzat dituen ondorioak aztertu ditu EHUko Ekonomia eta Kudeaketa saileko irakasleekin batera lankidetzan egindako azterketa batean LAB sindikatuarentzat

LAB sindikatuak Lanbide-arteko Gutxieneko Soldata propioaren aldarrikapena 1628 euroko soldata batean kokatu zuen 2024an, ezarri beharreko lurraldearen (Hego Euskal Herriaren) lanaldi osoko batez besteko soldataren %60 izan behar duelako Europako Gutun Sozialak eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen 131. Hitzarmenak eta 2022/2014 Europako Zuzentarauak zehazten duten bezala.

Aldarrikapen sindikal propioaren gainetik halere, eta beste sindikatuekin adostuta LGS propio bat Hego Euskal Herrian ezartzeko aukera errealari eta proposamenari helduz, aldarrikapen bateratua aurten 1500 eurotan kokatu du LABek patronalari negoziatzeko deialdia eginez, espainiar estatuan 2025etik indarrean dagoen 1184 euroekin kontrastatuz.

Azterketaren egileak	- Ipar Hegoa Fundazioa - EHUko Ekonomia eta Kudeaketa saileko irakasleak
Aztertutako datuak	- Gizarte Segurantzaren Bizitza Laboralaren Lagin Jarraitua - Etxeko langileen erregimen bereziko datuak
Lagina	Gizarte Segurantzako 36.579 langileko lagina
Ezarritako langa	1.500eko soldata 14 pagatan
Azterketaren datuen data	2.024ko abendua
Errore marjina	-%5

Datu hauen kalkulurako soilik kontuan hartu dira erregimen orokorrean eta etxeko langileen erregimenean diharduten langileak. Zehazki hala egin dugu, batetik, Bizitza Laboralaren Lagin Jarraituaren datuak erabiliz, erregimen orokorreko langileen soldaten gaineko estrapolazioa egin genezakeelako eta, bestetik, etxeko langileen kasuan, erabateko gehiengoa dagoleako 1.500 euroko soldataren azpitik. Beste erregimen batzuetan dauden langileak (autonomoak, nekazaritza...) ez ditugu kontuan hartu eta ondorioz hemen agertzen diren datuak (kopuru absolutuei dagokionez) gutxienekoak direla azpimarratu nahi dugu. Alegia, datu errealak handiagoak dira erregimen horietan 1500 euroko soldataren azpitik dauden langileak egongo direlako ere.

Esan gabe doa, azterketa honen oinarria Gizarte Segurantzaren altan emanda dauden afiliazioak direla eta, ondorioz, azterketa honek ezin dituela jaso, daturik eta inkestarik egiten ez delako, ezkutuko lan merkatuan aritzen diren langileen errealitatea edota ordaindu gabeko aparteko orduak edo ezkutuan ordaintzen diren lanorduek. Baina izan badaudela denok dakigu, eta bereziki kaltetuen diren langile sektoreei eragiten dien errealitatea da hori ere.

Azterketa hori Ipar Hegoak datu ekonomikoen eta soldata egituraren bestelako informazio eta datuekin osatu du. Azterketa hau, Ikusmiran argitalpenen barnean, hurrengo asteetan bere osotasunean eta datu interesgarri gehiagorekin argitaratuko dugu eta denon eskura egongo da.

Ondorio nagusiak

1. Lanbide-arteko Gutxieneko Soldata propio bat ezartzeko ukazioak Hego Euskal Herriko milaka eta milaka langile kaltetzen ditu zuzenean eta langileria osoa zeharka.

1.1. Hego Euskal Herriko **5 langiletik 1ek dagokigun soldata minimoaren azpitik** dagoen soldata kobratzen du.

Hego Euskal Herrian 2024ko abenduan, **gutxienez, 239.535 pertsona** zegoen lanean 1.500 euroko soldata gordina baino gutxiago irabaziz. Zenbaki horren barnean kokatzen ditugu erregimen orokorrean zein etxeko langileen erregimenean kokatzen diren eta 1500 baino gutxiago irabazten duten langileak. **Alegia, 1.111.272 langileen % 21,55a.**

1.2. Hego Euskal Herrian dugun egoera sozioekonomikoaren eta bizi maila ekonomikoaren aurrean, soldaten zorua 1500 eurotan kokatuta egon beharrean 1184ean egoteak (%21,07 gutxiago), milaka langile horiei ez ezik, **langile guztiei eragiten die soldata egitura osoa desitxuratu eta debaluatu egiten delako**. Begi bistakoa da 1500 euroko soldatatik behera dagoen langileen %21,55 hori ikusita alde batetik: eta, bestetik, aurrerago agertuko dugun bezala Hego Euskal Herrian BPGrekiko soldatek daramaten pisu galera ikusita bestetik (Estatuko norabide orokorraren kontra).

LGS propio bat ezin ezartzeak zuzenean kaltetutako langileen argazkiak orohar lan munduan ematen den desberdinkeria sakontzen du eta jarraian agertzen ditugun datu eta lerroburueta ikus daiteke.

1.3. Batetik, gizon eta emakumeen arteko arrakala begi bistakoa da 1.500 baino gutxiago jasotzen duten 239.535 langile horietatik, **160.292 emakumeak dira** eta 79.243 gizonak. **Alegia, %66,91 emakumeak dira, hirutik bi.**

Emakume langile guztien artean, %28,69ak jasotzen du 1.500 euro baino gutxiago, alegia, emakumeen hiru kontratuetatik kasik bat esan dezakegu. Gizonen artean berriz %14,34a da halako baldintzak dituenen portzentaia.

1.4. Halaber, langile migranteek nozitzen dituzten lan baldintza kaskarren erakusle ere bada argazki hau. 1.500 euro baino gutxiago jasotzen duten 239.535 langile horietatik, **118.999 Hego Euskal Herritik kanpo jaiotakoak dira, alegia, %49,67a, bitik bat.**

Euskal Herritik kanpo jaio direnen artean, %32ak jasotzen du 1.500 euro baino gutxiago. Emakumeen kasuan %41,73ak jasotzen du 1500 euro baino gutxiago eta gizonen kasuan, %21,35a, beti ere Euskal Herritik kanpo jaiotakoen artean

1.5. Eta hirugarren aipamena gazteei egin nahi diegu. Erreferentzia 30 urtez azpikoetan jarri dugu. 1.500 baino gutxiago jasotzen duten 239.535 langile horietatik, **61.896 pertsonak 30 urte baino gutxiago dituzte, hau da, %25,84, lautik bat.**

Adin horietan dauden guztien arteko %32,4ak 1.500 euro baino gutxiago jasotzen du, alegia, hirutik batek. Emakume gazteen kasuan, %35,71a da eta gizon gazteen kasuan, %28,6a.


1.6. 239.535 lagun horiek jasotzen duten soldataren eta LGS propio batekin jasoko luketen 1500eko gutxieneko soldataren arteko diferentzia bere enplegatzaileak (enpresari pribatuak batez ere, baina baita administrazio publikoak) poltsikoratzen ari dira. **2024ko abenduko soldatak erreferentzia bezala hartuta, urteko soldatetan langile horiei dagozkien 461 milioi euro gehitu zituzten euren mozkinetara. Alegia, enpresari eta administrazioek 461 milioi euroko plusbalia erantsia atera diete langile zaurgarrienei Hego Euskal Herrian.** Horietatik 323 milioi euro emakumeen soldatei dagozkie (138 milioi euro gizonezkoetan). Eta 151,5 milioi lanaldi partzialetan ari diren langileei (309 milioi lanaldi osoan dauden langileei).

2. Espainiar Estatuan ezartzen den LGSa ez da eraginkorra Hego Euskal Herrian. Izan ere, gure egoera ez da berdina soldata egituran eta ekoizpenean. Eta ezta ere bizitzeko behar diren diru sarrerei dagokienean.

Eraginkortasun eza hori agerian geratu da Espainiar Estatuko LGSak berak hobekuntzak izan dituen azken urte hauetan. Gorakada hori gertatuta ere Hego Euskal Herrian Barne Produktu Gordinarekiko (BPG) soldatek pisua galtzen jarraitu dute. Langileek aberastasunaren banaketan galtzen jarraitzen dugu Espainiar Estatuko LGSaren hobekuntzak ez duelako inpakturik gure egoera sozio-ekonomiko propioan eta, LGS propioa ezarri ezean, soldaten eremuan aberastasunaren banaketarako zorua ezin jarri gaudelako kapital eta enpleguaren errenten arteko banaketa propioan.


Zehazki, 15 urtetan soldaten pisuak 3 puntutan egin du behera BPGean. Honako taulan ikus dezakegu eboluzioa. 2020ko Covid19aren pandemiak ekarritako ekonomiaren geldialdiak bakarrik eten du (eta berehala berreskuratuz bere kopuruak) joera hori.

SOLDATEK BPGEAN DUTEN PISUA




Joera hori Hego Euskal Herrikoa da. Europar Batasunean edo Estatu egitura dituztenetan (Alemanian edo frantses eta espainiar estatuetan esaterako) goranzko joera antzeman dezakegu. Espainiar estatuan ematen ari den joeran zerikusi zuzena du estatuko LGSaren hobekuntza politikak. Baina, esan bezala, horrek ez du eragin positiborik Euskal Herrian, ez baita hemengo egoera espezifikoari erantzuteko neurri nahikoa. Estatu egiturarik ez izateak edo, gutxienez eskumen hori ez izateak, gure soldaten pisuaren galera eragiten dute zuzen zuzenean.

SOLDATEN PISUA BPGEAN. BILAKAERA (%)



3. Hego Euskal Herriko langileen eros-ahalmenaren galera soldaten kontrako neurrien ondorioz.

Indarrean dugun sistema kapitalistaren azken krisiak inflazioaren igoera bortitza ekarri zuen. Prezioen gorakadak ez zuen pareko soldata igoera orokorrik izan ordea. Adostutako soldata igoerak nabarmen egon ziren inflazioaren azpitik, nabarmenago Nafarroan EAErekin alderatuta baina denean alde handiz. Esan gabe doa, adostutako soldata igoeretatik kanpo gelditzen ziren langile sektore prekarizatuentzat egoera are okerragoa izan zela.



LGS propioa ez izatearen ondorioak ere ikus daitezke erosahalmenaren aferra honetan. Izan ere, 2022-2023 artean inflazioak soldata errealak jeitsi zituen, eta soldata baxuenek baino ez zuten berreskuratu erosahalmena. Hala ere, Hego Euskal Herrian efektu horren agerpenak (bertako bizi maila eta baldintzak garestiagoak izanik), LGS propioaren faltan, horren beharra izango luketen langile guztiengan eragin positiborik ez izatea ekarri du, hobekuntza izan zutenen tasa oso txikia izan baitzen.

4. Soldaten eta Enpresarien mozkinen arteko eboluzioen konparaketa: enpresarien mozkinak inflazioaren askoz gainerik handitzen dira, langileen soldatak inflazioaren azpitik mantendu dituzten bitartean.

Adibide eta datu esanguratsu bezain gogorrarekin ilustratuko dugu baieztapen hau: 2014tik 2023ra, Hego Euskal Herriko industrian, patronalaren mozkinak %46,47 handitu dira, batz besteko soldaten igoera %16,66 izan den bitartean. 9 urteko epealdi horren urteko batez besteko tasak hauek dira:


Industria enpresarien mozkinak azken 9 urtetan, batez beste urtero %5,3 hazi dira.

Industria langileen soldatak azken 9 urtetan, batez beste urtero %1,76 hazi dira soilik.

Pandemiaren urtea izan zen salbuespena, baina ondorengo krisian inflazio altuak sortu zituen arazoek ez zuten patronalaren aldetik erantzun arduratsurik izan eta mozkinak handitzeko joera nagusitu zen soldaten kontra.


Taula honetan euskal industrian langileen soldaten eta enpresen mozkinetan egondako aldakuntza tasak ikus ditzakegu.

INDUSTRIA SEKTOREA. ALDAKUNTZA TASAK



Hego Euskal Herriko sektore guztiak kontutan izanez gero hauexek dira aldakuntza tasak:

INDUSTRIA SEKTOREA. ALDAKUNTZA TASAK



Enpresek mozkinak handitzen dituzten eta enpresariak aberastasuna metatzen dute langileen bizkar eta kaltetan. Gero eta kontzentrazio handiagoa dago aberatasunaren eremuan, enpresaburuen alde jakina. Aurretik esan bezala, soldaten pisua BPGrekiko jaitsi egin da enpresen mozkinekin alderatuta.

Eranskina: Azterketaren datu nagusien desglosea Nafarroan

Nafarroan 2024ko abenduan, **gutxienez, 52.571 pertsona** zegoen lanean 1.500 euroko soldata gordina baino gutxiago irabaziz. Zenbaki horren barnean kokatzen ditugu erregimen orokorrean zein etxeko langileen erregimenean kokatzen diren eta 1500 baino gutxiago irabazten duten langileak. **Alegia, 255.933 langileen % 20,54a.**

LGS propio bat ezin ezartzeak zuzenean kaltetutako langileen argazkiak orohar lan munduan ematen den desberdinkeria sakontzen du.

- Batetik, gizon eta emakumeen arteko arrakala begi bistakoa da 1.500 baino gutxiago jasotzen duten 52.571 langile horietatik, **35.611 emakumeak dira** eta 16.960 gizonak. **Alegia, %67,74 emakumeak dira, hirutik bi.**

Emakume langile guztien artean, %28,02ak jasotzen du 1.500 euro baino gutxiago, alegia, emakumeen hiru kontratuetatik kasik bat esan dezakegu. Gizonen artean berriz %13,16a da halako baldintzak dituen.

- Gazteen kasuan, erreferentzia 30 urtez azpikoetan jarri dugu. **1.500 baino gehiago jasotzen duten 52.571 langile horietatik, 13.722 pertsonak 30 urte baino gutxiago dituzte, hau da, %28,23, lautik bat.**

Halaber, langile migranteek noitzen dituzten lan baldintza kaskarren erakusle ere bada argazki hau. 1.500 euro baino gutxiago jasotzen duten 52.571 langile horietatik, **28.950 Hego Euskal Herritik kanpo jaiotakoak dira, alegia, %55,07a, erdia baino gehiago.**

Euskal Herritik kanpo jaio direnen artean, %28,92ak jasotzen du 1.500 euro baino gutxiago.

52.571 lagun horiek jasotzen duten soldataren eta LGS propio batekin jasoko luketen 1500eko gutxieneko soldataren arteko diferentzia bere enplegatzailerak (enpresari pribatuak batez ere, baina baita administrazio publikoak) poltsikoratzen ari dira. **2024ko abenduko soldatak erreferentzia bezala hartuta, urteko soldatetan langile horiei dagozkien 114,35 milioi euro gehitu zituzten euren mozkinetara. Alegia, enpresari eta administrazioek 114,35 milioi euroko plusbalia erantsia atera diete langile zaurgarrienei Nafarroan.** Horietatik 73,85 milioi euro emakumeen soldatei dagozkie (60,5 milioi euro gizonezkoetan). Eta 24,28 milioi lanaldi partzialetan ari diren langileei (90,07 milioi lanaldi osoan dauden langileei).